



**Lasarteoriatarrak pagotxen bila.**- Soinekoak, zapatak, osagarriak, erlojuak, haurrentzako arropa, informatikako produktuak... larunbatean herriko hamar dendetan produktuak merkeago aurkitzeko aukera izan zen. Izan ere, Aterpea Merkatarik elkartek antolatuta, Stock azoka burutu baitzen egun osoan zehar. Aurten berrikuntza bat izan zen, denda bakoitzak bere lokalean karpa bat zuten non merkealdiko produktuak eskaintzen baitzuten. Udalak lagundutako ekintza honen helburua herriko merkataritza sustatzea zen eta ederki bete zen. Alba moda, Olmi mertzeria, Urruzola mertzeria, Iturbe zapata-denda, Santana informatika, Abreu bazarra, Alda osagarriak, Akene zapata-denda edo Aritza mertzeria ziren parte hartu zuten dendak eta batetik bestera, herritar ugari ikusi ahal izan zen larunbatean merkealdi berezi hauetan zerbitzu aurkitzeko prest.

## 2 AISIA Gazte Kluba eta Kuadrillategin ikasturtea hastear

Urriaren 2an, ostiralean, Gazte Kluba eta Kuadrillategi ekimenean ikasturte berria hasiko dute. LH3 eta DBH4 maila arteko gazteek ostirala arratsaldeetan lagun artean eta euskaraz milaka ekintza eta abentura bizitzeko aukera izango dute bi ekimen hauei esker. Asteburu batzuetan ekintza bereziak ere izango dituzte.

## 3 KULTURA Urriaren zinema eskaintza zabala Manuel Lekuonan

Manuel Lekuonako kultur etxeko urriko kultur eskaintza aurkeztu zen ostiralean. Zinemak leku berezia du hilabete honetan, Amy Winehouse dokumentala, Ricki edo Disney-Pixarren 'Del Reves' filmak eskainiko dira. Antzerkia, dantza, opera eta ipuin kontalariak ere izango dira Manuel Lekuonan.



**Urriaren 2an, ostirala, ez da Txintxarri argitaratuko. Herriko informazio guztia txintxarri.eus atarian**

## EUSKAL JANTZI TRADIZIONALAK EGITEN IKASI NAHI DUZU?

Ttakun Kultur Elkartek Euskal Jantzi tradizionalak egiteko **bi ikastaro** antolatu ditu, bata **urrian** eta bestea **azaroan**. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko, bulegotik pasa zaitezke, **943 36 68 58** zenbakira deitu edota **kultura@ttakun.com** helbidera datzi.

AISIA

# Lagunekin euskaraz primeran igaro

## Kuadrillategi eta Gazte Kluba ekimenak urriaren 2an martxan jarriko dira

Ikasturtea hasi da eta horrekin batera, eskolaz kanpoko jarduerak ere martxan hasiko dira aurki, Gazte Kluba eta Kuadrillategi horien artean. Bi ekimen hauei esker, ostiraleko lagunekin primeran igaro eta lagun berriak egiteko aukera dute Lasarte-Oriako gazteek. Ikasturtean zehar, euskaraz haien gustuko milaka ekintza gauzatuko dituzte.

**O**stiralean, urriak 2, Lasarte-Oriako gazteek hitzordua dute, Gazte Kluba eta Kuadrillategi lehen saioa. Euskaraz lagun eta herriko gazteekin harremanak sendotu edo egiteko aukera paregabea eskaintzen die Ttakun KEk 8 eta 15 urte arteko gazteei.

### Gaztekluba

LH3 eta LH6 bitarteko gazteek ez dute ostirala arratsaldetan aspertzeko astirik izango.

Aipatu legez, Gazte klubak ikasturte berriari hasiera emango dio urriaren 2an eta hamaika ekintza egitea aurreikusten da.

Antolatzaileek aipatu digutenez, aisialdian oinarritzen den ekintza da. "Lehen egunean hurrekin solasaldi bat egin, arauak ezarri eta

ekintza gogokoena aztertzen dira".

laz arrakasta handia izan zuten postre lehiaketa, Olenzeroren etorrera, talde-jolasak edo kirol jolasak aurten ere egitea aurreikusten da, baina gazteen nahiak kontuan izango direla ere azpimarratu dute antolatzaileek.

Ekintza gehienak Ludoteka edo liburutegi zaharreko lekuan egiten badira ere, herrian zehar ere ekintzak egingo dituztela aurreratu dute, hala nola, Okendo plaza, Manuel Lekuona kultur etxea edo herriko parkeetan.

### Gazteburuak

Hau guztiaz gain, hiru astetan behin Gazteburuak antolatzen dira.

Larunbata arratsaldeetan ekintza edo irteera bereziak egiten dira, Txuri-urdirin, zaldi-



Gazte Klubeko lagunak ostiralean ekintza dibertigarriak egiten dituzte herrian.

tegi edo Labenne eta Arcahoneko ur-parkeetara, esate baterako.

Hau guztiagatik, LH3-6 maila arteko gazteek hitzordua dute ostiraleko arratsaldetik 17:30etik 19:30era. LH3 eta 4 mailak gaztetxoek Ludotekan egingo dituzte ekintzak. LH5-6koek berriz, liburutegi zaharra zen lokaletan.

### Kuadrillategi

DBH1-4 maila arteko gazteek aldiz, Kuadrillategi ekimena dute.

Ostiralean 19:00etatik 21:00etara, hiru taldetan banatuta, DBH1, DBH2 eta DBH3-4 ekintza ezberdinak egingo dituzte.

"Oraindik ezin ditugu ekintzak zehaztu. Baina taillerak, talde dinamikak eta herrian zehar jolasak egingo ditugu," aipatu dute Kuadrillategi arduradunek.

Honen guztiaren helburua, euskaraz lagun arteko harremana sendotzea da.

Ekintzez gain, irteerak ere egiten dituzte neguan eski irteera dute eta ikasturte amaieran, Arcachonera.

Eta uda ere lagunekin ongi igaro nahi dutenek, kanpaldietan parte hartu dezaketela azpimarratu dute arduradunek.

### Harremanak

Gainera, Kuadrillategi herriko gazteekin harremana izateaz gain, beste herrietako gazteak ezagutzeko aukera ere badute. "Lezo, Pasaia, Errenteria eta Oiartzun herrie-

tako Kuadrillategi taldeekin ekintzak egin ohi dira eta KTG eguna eta asteburuan denak biltzen dira herri batean," adierazi dute arduradunek.

### Izena ematea

Gazte Klubean parte hartu nahi duten gazteek urriaren 2an bertan lehenengo saioan edo Ttakuneko bulegoan izena eman dezakete.

Klubeko antolatzaileek LH3 eta LH6 maila arteko gaztetxoei gonbita egiten diete ekimen honetan parte hartzea.

Gainera aipatu dutenez, "asteburuetako ekintzetara bakarrik joan ahal direnei ere izena emateko gonbita egin diegu. Era horretara, ekintza guztien informazioa jasoko baitute".

DBH1-4 mailako gazteek ordea, lehenengo astean eman zuten izena.


Bestalde, Kuadrillategi saioen lekuak zehazteko daude oraindik. "Astean zehar jakin araziko zaie gazteei non egingo diren ekintzak," aipatu dute arduradunek.



Denetarik egiten dute Kuadrillategi gazteek. laz arrautza altuera batetik bota eta lurrera salbu iristeko tramankuluak.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557

#### Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

#### txintxarri

#### Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez.

**txintxarri@txintxarri.info**  
**publizitatea@ttakun.com**

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amadoz

## KULTURA

## Zinema ardatz urriko kultur agendan

Genero askotako emanaldiz betetako egitaraua prestatu du Udaleko Kultur sailak

**Kultur ekitaldiz josita dator urria. Denetik aurkitu ahal-ko dute herritarrek egitarauan: antzerkia, dantza, gazte-txoenentzako ipuin-kontaketa saioak... eta zinema. Udako oporraldiaren ostean iritsi zaio proiektore digitalari berriro lanean hasteko ordua. Saio ugari antolatu dituzte hilabete osoan zehar, haur zein helduentzako; Okendo Zinema taldearekin elkarlanean egingo dituzte horietako bi, zine forum delakoan.**

## TXINTXARRI

**K**ultur agenda anitza aurkeztu zuten ostiralean Lasarte-Oriako Udaleko Kultur arloko arduradunek eta Jesus Zaballos alkateak.

Egitaraua eskuetan hartuta, kolore bat nabarmen zuten da: zinema saioak iragartzen dituen horia. 12 antolatu dituzte guztira urrirako: helduen zinea, haurrena eta zine forum delakoa biltzen dira bertan.

Okendo Zinema Taldearekin elkarlanean egingo dute azken hori, bi saiotan: Amy Winehouse abeslari famatua zenaren bizitzari buruzko filma proiektatuko dute 9an eta 'Lore' pelikula 23an. Manuel Lekuona kultur etxe-ko auditorioan izango dira saioak. 5,50 euro balio dute sarrerak.

Haurrentzako zinemari dagokionean, urriaren 4an izango dute lehen hitzordua gaztetxoek, 17:00etan, kultur etxe-ko auditorioan. 'Campanilla y la leyenda de la bestia'

ikusitako dute. Handik astebera, toki eta ordu berean, 'Del reves' filmaren txanda izango da. Hilaren 18an berriz, oso ospetsu bilakatu den 'Minions' pelikula-az gozatu ahal dute haurrek, 3D formatuan gainera. Azkenik, 25ean 'Atrapa la bandera' eskainiko dute. 3,80 eurokoa izango da prezioa horietan guztietan.

Helduagoak direnek ere edukiko dute zer ikusi urrian zehar. Urriaren 4an 'Anacleto: Agente secreto', 19:30ean; 'Mision imposible: Nacion' urriaren 10ean eta 11n, 20:00etan eta 19:30ean; 'Vacaciones' 18an, 19:30ean eta azkenik 'Ricki' izenekoa 24an eta 25ean, 20:00etan eta 19:30ean. Saio guztietara sartzeko 5,50 euro ordaindu beharko dituzte herritarrek. 20:00etako saioak larunbat arratsaldeetakoak izango dira.

"Lasarte-Orian zinea ikusitako aukerak areagotze aldera antolatu ditugu", esan zuen ostiraleko agerraldian Juantxi Ugarte kultur teknikariak.



Juantxi Ugarte, Jesus Zaballos, Maite Iglesias eta Xabier Goitia, ostiraleko aurkezpen ekitaldian.

## 'Zapatila gorridun mutikoa'

Zineaz gain beste hainbat genero ere sartu dituzte urriko egitarauan. Esaterako, antzerkia. 'Zapatila gorridun mutikoa' lana urriaren 24an estreinatuko da, Lasarte-Orian, kultur etxe-ko auditorioan. 3,80 euro balio du sarrerak. Bestalde, Claire Ducreaux artistaren eskutik 'Refugiada Poetica' ikuskizunaz gozatu ahal dute herritarrek 31n, Udalak Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan egindako 'Lasarte-Oria Dantzan' egitasmoaren baitan. "Duela pare bat urte Euskal Herrian aritu zen Ducreaux eta aho-zapore bikaina utzi zuen", zehaztu zuen Juantxi Ugartek.

Bestalde, joan den urtekoari jarraiki opera-emanaldi digitalen aldeko apustua egingo du aurten Kultura sailak; urriaren 30ekoa izango da ikasturteko lehen emanaldia. Zehazteke dute oraindik ikuskizuna zein izango den: "Romeo y Julieta" eta 'La Bohème' dira bi aukerak, konfirmatu bezain laster jakinaraziko dugu zein emango dugun". Saioa 20:00etan izango da auditorioan, eta 9 eurokoak sarrerak.

Irakurzaletasuna ere sustatu nahi du Kultur sailak, gaztetxoeren artean batez ere. Hori dela eta, hiru ipuin-kontalari saio antolatu ditu hilean zehar, 'Kontukantoi' konpainiaren eskutik.

## Nagusien omenaldia

Urtero moduan, herriko nagusiei omen egingo die Biyak Bat elkarteak herriko hainbat eragilerekin elkarlanean, eta ekintzaz jositako egitaraua prestatu dute astebetean. Horietako batzuk Kultur sailarekin batera antolatu dituzte. Esaterako, urriaren 2an Ezezagunok izeneko konpainiako kideak igoko dira auditorioko oholtza gainera, 'La verdadera historia de Romeo y Julieta' komedia antzeztera. Aipatu behar da Jon Roncero herritarra dela aktoreetako bat. 19:00etan hasiko da emanaldi hori. Bestalde, urriaren 7an Gorka Aginagalde eta Maribel Salas aktoreek 'Monolocos' ikuskizuna eskainiko dute.

## Atsobakar afera, PSE-EEren erantzuna

Jesus Zaballos alkateak EH Bildu alderdiaren adierazpenei erantzun eta Atsobakar zaharren egoitzaren auziari buruzko argibideak eman zituen ostiralean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak esan du ez duela bere gain hartuko Atsobakar zaharren egoitzaren kudeaketa. Horren aurrean, Jesus Zaballosek adierazi du udala ez dagoela ados horrekin: "Legealdi hau hasi baino lehen EAJ eta PSE-EE akordio batzuetara heldu ziren. Horietako bat izan zen PSE-EEK eta EH Bilduk Kabia erakundearekin iritsitako akordioak errespetatzea. Atsobakarren eskualdatzea dago horren baitan, Aldundiak hartuko duela alegia. EAJk ez badu sinatutako agiri hori errespetatzen, epaitegietara joko dugu".

Bestalde, ostegunean EH Bildu koalizioak egindako agerraldiaren inguruan ere aritu zen Zaballos: "EH Bilduk leporatu

digu antzerki hutsa izan zela lehengo astean Aldundikoekin egin genuen bilera. Zer zentzu dauka orduan epaitegietara joatearen mehatxua egiteak? Antzerkia egin nahi izan bagenu, hedabideak deituko genituen bilerara argazkia atera eta zabalteko, baina ez dugu egin. EH Bilduk egin du antzerkia aurreko legealdian, Udalean zein Aldundian. Esan dute akordio batera iritsi zirela Aldundiarekin. Zergatik ez zuten sinatu orduan? Gizarte Zerbitzuetako batzordean sartu garenean ez dugu inolako dokumenturik ikusi inon".

Alkateak adierazi zuen EH Bilduren adierazpenak "kontraesan korrak" direla: "Diote 900.000 euroko defizita eragingo diola Udalarri urtero Atsobakar kudeatzen jarraitzeak, eta hori oso kaltegarria dela herriarentzat, baina haiek Aldundiarekin negoziatu zuten akordioan adostu

zuten 2001etik Udalak pilotutako zor hori bere horretan uztea, eta diru hori ez eskatzea".

Era berean, Aldundiko 2015eko aurrekontuak ere izan ditu hizpide alkateak: "Oposizioko alderdiek ez zituzten EH Bilduren aurrekontuak onartu, baina zergatik? Ez zutelako inorekin negoziatu. Apirilean onartu ziren partida gehigarri batzuk Atsobakarren hitzarmena bideratzeko, egia da, baina PSE-EEK babesa eman zielako. Udalbatzaren ere babesa eman genion hitzarmena sinatzeari, onuragarria iruditzen zitzaigulako, baina ez zuten ezer sinatu azkenean".

"EH Bilduri esan nahi diogu utzi diezaioala gezurrak esateari, eta udal gobernuarekin batera indarrak batu ditzala herritarrentzat onena dena eskatzeko: Aldundiak har dezala behingoz bere gain Atsobakar egoitzaren kudeaketa", amaitu zuen.

## HIRIGINTZA

## Loidi Kalea itxia

Gaur, goizeko 8:00etatik 13:00etara, Loidi Kalea trafikorako itxi egingo da, udaleko brigadak oinezkoen pasabide goratuak egin behar ditu eta.

Lasarte-Oriako Udalak barkamena eskatzen du itxiera honek eragin ditzakeen eragozpenengatik.

## ZABALETA AUZOA

## Udazken festa ostiralean

Zabaleta auzoko lagunek udazkenari ongi etorria emango diote urriaren 2an, 19:00etatik aurrera.

Lehenik, Goiener energia kooperatibako lagunek egungo sistema elektrikoari buruz hitz egingo dute, baita honetan ez murgiltzeko dauden irtenbideei buruz ere.

Jarraian, 20:30ak aldera, sardina goxoak dastatuko ahal dira Antonio Blas Plazan, ohikoa den sardinajanari esker.

## POLITIKA

## EH Bilduren plaza irekia asteazkenean

Irailak 30ean 19:00etan Villa Mirentxun egingo du Lasarte-Oriako EH Bilduk Plaza Irekia. Bertan landuko dira hauteskunde orokorrak eta Lasarte-Oriako EH Bilduren egituratzea. Honetan parte hartzera gonbidatzen dituzte herritarrek.



Ohikoa den moduan bertsolarien agurrekin hasi zen final zortzirena.



Bertsozaleek Manuel Lekuona kultur etxeko aretoa bete zuten. Bertsolariari haien berotasuna agertu zieten momentu askotan.



Bertsolariak adi entzun eta ederki erantzuten zieten ezarritako gaiei.

## Final laurdenetarako geltokia Lasarte-Oria

Bertso zale eta herritarrek Manuel Lekuonako aretoa bete zuten

**Atzo Lasarte-Orian Gipuzkoako bertsolari txapelketako final zortzirenetako bat jokatu zen. Bertsozaleek Manuel Lekuona bete zuten. Final laurdenetarako txartela eskuratzeko lehia polita izan zen.**

TXINTXARRI

**M**aider Arregi, Mikel Artola, Aitor Irastorza, Xabier Sukia, Beñat Lizaso eta Gorka Azkarate bertsolariak izan ziren atzo arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxean nor baino nor.

Herritar eta bertsozaleek ederki erantzun zuten eta

saioa ikustera hurbildu ziren. Nahiz eta herritarrik ez izan saioan, epaimahaiko idazkari lanetan herritar bat zegoela nabarmendu behar da, Gorka Seguroa.

Urduritasuna nabari izan zen agurretan, baina alde batera utzi eta lehen sailkatuak zuzenean final laurdenekoetarako txartela eskuratuko zuela argi zuten bertsolariak.

Binaka edo bakarka Imanol Artolak ezarritako gaiei aurre egin behar izan zioten, hala nola, Beñat Lizaso eta Gorka Azkarate Kilometroak-eko antolatzaile lanetan jarri zuten bata eguna iristeko irrikitan eta bestea kezkez beteta.

Saio politaz gozatu zuten bertsozaleek Manuel Lekuonan.

Baina, hau ez da azken final zortzirena izan. Larunbatean, esate baterako, Unai Muñoa herritarrak Elgoibarko Herri antzokian sailkapena eskuratzeko lehiatuko da.

## Nagusien ohorezko ospakizunak hastear

**O**stegunean, urriaren 1a, Nagusien omenaldiko ekintzak hasiko dira Biyak Bat elkartean. Bandera altxatzearekin batera ospakizunez betetako zortzi egun izango dira aurretik.

Bandera altxatzearen ostean, txapelketa ezberdinak jarriko dituzte martxan. Mugimendu jokoan txapelketak, hau da, toka, bote eta igela txapelketak Isla plazan izango dira; Biyak Bat elkarteko egoitzan berriz, Bingo txapelketa.

Ostiralean, ibilbide osasungarria egingo da Okendo plazatik egoitzara. Amaitzean, luntxa izango dute partehartzaileek.

Arratsaldean berriz, 'La verdadera historia de Romeo

y Julieta' antzerkia izango da Manuel Lekuona kultur etxean.

Bertara joateko asmoa dutenek, kalejira alaian joan ahalko dira egoitzatik hasita Manuel Lekuonara.

Larunbatean, kirola egin eta gorputza mugitzeko aukera izango dute herriko adinduek.

Goizean goiz ibilaldi neurtua izango da eta bikoteka herrian zeharreko ibilbidea egingo dute.

Arratsaldean, aldiz, dantzaldia eta dantza lehiaketa izango dira Biyak Bateko egoitzan.

Egun handia urriaren 4a izango da. San Pedro parro-



Nagusien omenaldiko ekintzen artean txapelketa eta ibilaldi neurtuak arrakasta handia dute.

kian hasiko dira ospakizunak, 11:30eko mezarekin.

Meza amaitu ostean, kalejiran aterako dira Manuel Lekuona kultur etxeraino. Bertan Biyak Bat elkarteko abesbatzaren emanaldia izango da.

Emanaldia amaitu eta Michelingo pilotalekuan Nagusien omenaldiko ohiko

bazkaria ospatuko da. Honekin bazkarian izena eman duten pertsona adinduenak omenduak izango dira.

Azkenik, eguna era ezin hobean amaitzeko dantzaldia izango da Ibai Berriak taldearen eskutik.

**Izena ematea**

Lehiaketa guztietan izena

emateko aukera dago oraindik, martxa neurtuan izan ezik.

Bingo lehiaketako izena emate epea irailaren 30ean amaitzen da.

Era berean, Biyak Bat elkarteko kideek gogoratzen dute, ibilaldi neurtuko dortsala eta tiketak urriaren 2ra arte jaso ahal direla.



Katxiporretako lagunek 'Txo, Mikmak txikia' DVDan erabilitako berrikuntzak azaldu zituzten.



Jon Maia Albalola proiektua azaldu eta bertsoa ere botatu zuen.

## Ametsak mundura ezagutarazten Musika eta hitzez betetako erreportaje proiektua

**Katxiporretako lagunek 'Txo, Mikmak Txikia' DVDaren argitalpenarekin lotuta, ostiralean 'Zuhaitzetan itsasora goaz' eta 'Jalgune. Pausoka bagoaz aurrera' erreportajeen emanaldi berezia egin zuten Manuel Lekuonan. Hurbildu ziren herritarrek ederki pasa zuten Pirritx, Porrotx eta Marimototsen abentura berriak ikusiaz eta Albaola, Surfrider edo Jalgune proiektuen berri izan zuten.**

Musika, bertsoak, dantza eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak. Ostiralean, 'Txo, Mikmak Txikia' DVDaren erreportaje proiektua berezia egin zen Manuel Lekuona kultur etxean.

Lehenik, Katxiporretako lagunek Isa Fernandez de Agireren eskutik, alde teknikoan azaldu zituzten berrikuntzak azaldu zituzten, hala nola, kromaren erabilera.

Jarraian, Jon Maia bertsolaria eta Albaolako kidearekin solasean egon ziren egurrezko ametsa den Albaola proiektuari buruz. Euskal baleontzien historiari eta arotz ontzigile lanbideaz mintzatu zen. Bertso bat

kantatzera ere gonbidatu zuten pailazoek.

'Zuhaitzetan itsasora goaz' erreportajearen Albaola proiektuaz gain, pailazoek Surfrideroko lagunekin itsasora eta itsasertza garbi mantentzearen garrantziari hitz egin eta haien lana erakusten dute.

### Gazteak ezagutu

Bigarren erreportajearen, 'Jalgune. Pausoka, bagoaz aurrera' Lasarte-Oriako Jalgune elkartearen osatzen duten lagunak eta elkartearen egiten den lana ezagutu ahal izan zuten.

Aurretik, elkartearen praktikak egin eta begirale izatea erabaki duten Noelia eta

Manexekin hitz egin zuten elkarteari buruz.

Emanaldi amaitzeko, pailazo eta Jalguneko lagunek 'Pausoka pausoka' abestiarekin dantzan jarri zituzten guztiak.

Bai Jon Maiak, baita Jalguneko lagunek ere eskertza orogarria jaso zuten Katxiporretako lagunen esku.

### Solasaldia

Erreportajeak ikusi ostean, kafetegian Jalgune elkartearen buruzko solasaldi txikia egin zen. Albaolan antolatua zegoen ekitaldi bat zela eta, Jon Maia ezin izan zen mahai ingurura geratu.

Honetan Pili Bermejo elkartearen buruzko elkarteak egiten duena azaldu eta kafetegian zeuden herritarren galderak ere erantzun zituen.

Honetaz gain, Katxiporretako lagunei ere eskerrak eman zizkien proiektu honetarako haiekin gogoratu izanagatik.

Azkenik, luntxa dastatu zuten guztiak.



Jalguneko lagunek festa giroa ekarri zuten haien dantzekin.



Kafetegian mahai inguru txikia egin zen. Honetan Jalgunerari buruz mintzo zen.



Mery May & The Muppets taldeak Okendo plaza musikaz bete zuten ostirala arratsaldean.

## Indie doinuak nagusi Okendo plazan

Ostirala arratsaldean, hainbat izan ziren ez ustekoa hartu zuten herritarrek. Izan ere, musikak hartu baitzuen Okendo plaza. Giro ederrean, Mery May & The Muppets taldeak emanaldi eskaini zuen Lasarte-Orian.

Kultur Kale Zikloaren baitako kontzertu hau irailaren 12an eskaini behar zen, baina eguraldi txarra iragarria zegoenez bertan behera geratu zen.

Ostiralean, eguzkia lagun, Mery May abeslari arrasatearren ahotsaz eta The Muppets taldearen indie doinuek plaza dantzan jarri zuten.

Herritarrek taldearen kantu propio eta hainbat kantari ezagunen abestiez ere gozatu zuten, hala nola, Marvin Gaye edo Amy Winehouse.

### Amaiera emanaldia

Kontzertu honek aurtengo Kultur Kale Zikloari amaiera eman zion.

Jokin Telleria Xpressionk elkartearen kideak aipatu digunez, "herriko Psicoacoustic taldearen kontzertua hurrengo urterako uztea erabaki dugu, beraz, hau da 2015 urteko zikloari amaiera ematen dion kontzertua".

## FUTBOLA.

## Ostadar SKT-ko emakumezkoak hiru puntuak lortu zituen

Emakumezko erregionaleko neskek taldea osatzeko sare sozialetara ere jo dute

**Ostadar SKT-ko emakumezkoen taldeak denboraldiari hasiera eman zion larunbatean. Taldea osatzeko aha-lerin handiak egin dituzten udan zehar eta herriko neskek gonbidatzen dituzte haiekin jolastera. Hala ere, denboraldi honetan lan ona egitea espero dute eta hala erakutsi zuten, lehen partida irabazita.**

## TXINTXARRI

Luberri taldea izan zuen aurrez aurre Ostadar SKT-ko emakumezkoen erregionalak larunbatean eta garaipena erdietsi zuen, 1-0.

Julen Ormazabal eta Iker Artetxek zuzentzen duten taldea gogotsu atera zen zelaira. Partida hasi eta gutxira Goretzi atezainak orkatila bihurritu zuen eta minduta jokatu zuen partida osoa.

Honetaz gain, denboraldiko lehen partida zela nabari zen bi taldeetan, urduritasuna zen nagusi.

Ostadarri baloiarekin jokoa egitea kosta zitzaion eta esate baterako, aldeko penalti batean huts egin zuen. Atsedendira hutsnako berdintzarekin joan ziren.

Bigarren zatian, berriz, jokoa aldatu zuen herriko taldeak, bandetatik jokatu eta baloiak gora bidaliz. Aukera gehiago izan zituzten horrela eta kontra batean Kiarak Saiolari pasa eta gola iritsi zen.

Julen Ormazabal entrenatzailea, pozik agertu zen neskek egindako lanarekin, "aurrendenboraldian izan ditugun arazoak ikusita".

## 'Fitxaketak', Facebook-en

Ostadar SKT osatzen duten neskek kosta ala kosta atera nahi zuten taldea, eta euren eskura izan dituzten baliabide guztiak erabili dituzte, baita sare sozialak ere. "Neskek buru-belarri ibili dira talderako jokalaririk berriak bilatzen, bihotzez eskertu behar diegu hori. Leku guztietan ibili dira jendea bilatzen, kartelak jarri dituzte kiroldegian, Facebook kontua ere sortu zuten jendearekin harremanetan jartzeko... Zailtasunak eduki ditugu taldea aurrera ateratzeko, baina lortu dugu", dio Julen Ormazabal entrenatzaileak.

Guztira 18 jokalaririk osatzen dute taldea. Min hartuta daude horietako bi, eta osatzen fitxa egingo zaie.

Abuztuari hasi ziren entrenatzen eta oporrak eta lesioak



Emakumezkoen erregionalak taldea ozta-ozta osatu du, horregatik herriko neskei gonbita egiten die parte hartzera.

tarteko zenbaitetan juxtu xamar ibili arren, orokorrean ondo joan dela dio Ormazabalek: "Gogo askorekin etorri ziren neskek entrenatzera, eta saio desberdinak egin ditugu, arlo fisikoa zein teknikoa landuz. Gainera, ekintza desberdin batzuk ere egin ditugu: Leizaranera joan ginen bizikleta hartuta".

Uda partean taldea osatzeko izan dituzten zailtasunak erreparatuta, astero berdegutera irteera haientzako garai-pen bat dela esan daiteke, baina ez dira horrekin konformatzen, ezta gutxiagorik ere: "Ahalik eta ondoen ibili nahi



Aukerak izan zituzten Ostadarreko neskek, hala nola, areaz kanpoko faltak.

dugu fase honetan eta gero ikusiko dugu, baina guztiaren gaineratik haiek jokatzen disfrutatzea nahi dugu, lehengo urtean egin moduan", nabarmendu du Ormazabalek.

Astelehen, asteazken eta ostialetan entrenatzen du taldeak, 20:30etik 22:00etara. Norbaitek futboleko aritzeko gogoia eduki eta probarik egin nahiko balu, zabalik ditu taldearen ateak.

## PILOTA.

## Intzako nagusiek etxean puntuak lortu zituzten

Intza KEko pilotariak lehengo asteburuan hasi zuten Gipuzkoako ezker hormako txapelketa. Asteburu honetan 2. mailako nagusien bikoteak Oartzuneko Oiarpe taldearen aurka jokatu du partida Michelineko pilotalekuan.

Aurreko asteburuan, Zumarragan 22-20 erori zen bikotea eta arantza atera nahi zuten Intzako lagunek.

Partidako lehen minutuak amorragarriak izan ziren herriko bikotearentzat. Jon Peio Artetxe eta Aritz Solano gogotsu atera ziren, baina akatsek oartzuarrak lehen tantoetan aurre hartzea ekarri zuen. 0-4 eta 1-5 ikusi ahal izan ziren markagailuan.

Intzako bikoteak buelta eman ahal izan zion emaitzari eta seina berdindu ostean,



Intzako nagusiek partidari buelta eman eta garaipena lortu zuten.

aurre hartu eta pixkanaka tarte ireki zuen.

Bai aurrean baita atzean ere ederki landu zituzten puntuak herritarrek eta errazmende hartu zituzten Oartzungo pilotariak.

Azkenean 22-13 gailendu zuten Intzako bikotea.

## Arteaga garaile Iruñean

Bestalde, Axier Arteaga gaztea Iruñeko II. Polque Altzarriak txapelketako promesa

mailako txapelketa izan zen Erasun zizurkildarrarekin batera.

Larunbatean, Labrit pilotalekuan jokatu zen finalean Etxebarria II-Mariekurrena izan zituzten aurrez aurre eta 22-17 irabazi zuen partida Arteaga-Erasun bikoteak.

Partida berdindu eta borrokatua izan zen eta azken tantoetan erabaki zen. Hamazazpina berdindu ostean, Arteaga eta Erasunen esperientzia erabakigarri izan zen eta garaipena erdietsi zuten.

Lasarte-Oriako aurrelariak lan ederra egin zuen 13 tanto eskuratuta eta garaikurrak gain, txapelketako jokalariko osoena eta jatorrena izateagatik zilarrezko San Fermina jaso zuen Joseba Asirón Iruñeko alkatearen eskuetatik.

## LABURRAK.

## Herritar talde batek Leitzara txirrinda-irteera antolatu du larunbatean

Larunbat honetan, urriaren 3a, txirrinda hartu eta buelta eder bat eman nahi duenak Basaundi plazan du hitzordua, goizeko zortzietan.

Urtero legez, herritar talde batek Lasarte-Oria-Leitzara ibilbidea egingo du.

Goizeko 8:00etan Basaunditik atera eta Leitzaranetik barrena Leitzara iritsiko dira. Bertan hamaiketako egingo dute, bueltan etorri aurretik.

Lasarte-Oriara iristean Buruntzapiti elkartearen bazkari-legea egin ahal du hala nahi duenak.

Antolatzaileek ohartarazi dute irteeran parte hartzeko nahikoa dela hitzorduaren egun eta orduan Basaundi plazan egotea.

## Agenda

Ostirala, Zabaleta auzoa, 19:00etan



### Udazkenari Ongietorria

Zabaletako bizilagunek urtero bezala Udazken festa antolatu dute auzoan. Ostiralean 19:00etan, Goiener energia berriztagarrien kooperatibaren eskutik egungo sistema elektrikoa eta egungo irtenbideen inguruko hitzaldia izango da. Jarraian, 20:30ean, Sardina jana herrikoia egingo dute. Bizilagunak animatzen dituzte bi ekintza hauetan parte hartzera.

#### Ostirala 2

11:00etan, Ohiko ibilbide osasungarria delakoa egingo da eta ostein, lancha izango dute parte hartzaileek.

18:15ean, Kalejira

19:00etan, 'La verdadera historia de Romeo y Julieta' antzezlan Manuel Lekuonan. Doan.

#### Larunbata 3

9:30ean, Ibilbide neurtua Okendo plazan hasita.

17:00etan, Dantzaldia egoitzan.

18:00etan, Dantza lehiaketa.

19:30ean, Sari banaketa.

#### Igandea 4

11:30ean, Meza San Pedron.

12:00etan, Kalejira.

12:30ean, Biyak Bat egoitzako koruaren emanaldia Manuel Lekuonan.

14:00etan, Bazkaria Michelingo frontoian.

16:00etan, Dantzaldia Ibai Berriak taldearekin.

#### Astelehena 5

17:30ean, Ipuin kontalaria Biyak Bat egoitzan.

18:30ean, Brigitarren komentuan Biyak Bateko koruak eta Nagusilan abesbatzaren emanaldia. Doan. Ondoren, 20:00ak aldera, lancha egingo dute denek Biyak Bateko egoitzan.

#### Asteartea 6

17:00etan, Okendo plazan gimnastika erakustaldia, lerroko dantza eta areto dantza emanaldiak eskainiko dituzte jubilatuek.

## Lasarte-Oria

### Zinea

MANUEL LEKUONA

Igandea, 17:00etan

Haurrentzako zinema saioen hasiera, 'Campanilla y la leyenda de la bestia' filma ikusi ahalko da. Honetan Campanilla eta bere lagun maitagarriak animalia misterioitsu baten lagun egiten dira, NeverBeast izenekoa. Bestalde, beste maitagarri talde batek, scouts-ak, izakia bahitzea du helburu, maitagarrientzat mehatsu bat dela uste dutelako. Campanillak konfiantza du ez lukeela inoiz minik egingo, horregatik elkartuko dira bere lagun berria laguntzeko. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA

Igandea, 19:30ean

Helduentzako zinema saioan, 'Anacleto, agente secreto' filmaz gozatu ahal izango da. Adolfo, segurtasunean lanean ibiltzen den 30 urteko mutil gaztea, une zaila igarotzen ari da. Vazquez hiltzailea buru duen talde baten helburu bihurtzen da. Gainera bere aitak identitate bikoitza duela konturatzen da. Anacleto aita ordu baxuetan dagoen agente sekretu bat da eta. Honek duela 30 urte kartzelaratu zuen Vazquez. Adolfo bere lana utzi beharko du eta aitarekin elkarlanean aritu, bien artean Vazquez-en mendekuari aurre egin ahal izateko. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA

Ostirala 9, 22:00etan

Okendo zinema taldearekin batera antolatzen den Zine Forum atalean, 'Amy Winehouse' filmaz gozatu ahalko da. 2011. urtean hildako abeslariaren alde bihozbera azaltzen den dokumentala da. Sarrera 5,50 euro.

### Zaharren Omenaldia

BIYAKBAT

Osteguna 1

16:00etan, Asteari hasiera emango zaio bandera altxatzearekin eta aurrekuarekin.

16:30ean, Toka, Igela, Bote eta bingotxo txapelketak egingo dira.

## Herritarren txokoa

### Biyak Bat elkarteko abesbatza zuzendari bila

Biyak Bat erretiratuen elkarteko abesbatzak zuzendaria behar du.

Elkarteko kideek azaldu digutenez, urtariletik aurrera hasiko litzateke lanean zuzendari berria.

Interesa duten pertsonak elkarrekin harremanetan jarri behar dira 943 36 39 64 zenbakian, [biyakbat@gmail.com](mailto:biyakbat@gmail.com) helbide elektronikoan edo egoitzara hurbilduz, Kale Nagusia 40 baxua, astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

### Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehena izanda, gaur, irailak 28, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

### Alboka Abesbatza

Alboka Abesbatzak 2015-2016


ikasturte berria hasi du eta 15-55 urte bitarteko herritarrak animatu nahi ditu parte hartzera.

Astelehen eta ostegun guztietan 20:00etatik 21:30era entsaiatzen du abesbatzak Arantzazuko Amaren Eliza azpiko lokalean, Zumaburun.

Informazio gehiago jasotzeko idatzi [info@albokaabesbatza.com](mailto:info@albokaabesbatza.com) era.

## Hemeroteka

### Duela 1139 ale



Zaharren omenaldia hasten den honetan, TXINTXARRI-k 1999an elkarrizketa egiten zien Biyak Bateko gimnastika taldeko kide batzuri. Aurten ere ohitura bilatu denez, erakutsiko dute sasoiaren daudela. San Pedro festen aurretik ere egiten dute erakustaldi dotorea.

130. zenbaki hartan, ekintzak dagoeneko hamabost urteko ibilbidea zuela azaltzen zuten arduradunek, Ixiar Camero-Nuñez, Juan Prieto, Blas Blas eta Julia Martinez. Lehenengo entrenatzailea Felix Pontesta izanda.

"Ahal dugun arte mugitzea da gure nahia". 80 bat lagunek osatzen zuten taldea orduan, nahiz eta erregulariki entrenamendutara 60 inguru gerturatu "batzuetan ilobek klaserik ez dutela eta amonak geratu behar izaten du haiek zaintzen". "Beste tokietan nola den ez dakit, baina hemen emakumeak gehiago gara gizonak baino".

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintzarri@txintzarri.info](mailto:txintzarri@txintzarri.info)

Jesus Zaballos Alkatea

# “Industria erakarri nahi dugu”

Jesus Zaballos alkateak argi dauzka zeintzuk diren legegintzaldiko lehentasunak. Langabeziari aurre egiteko herrian ezarriko diren enpresak erakarri nahi ditu eta kiroldegi berri bat eraiki Michelingo kirol gunean. Etxebizitzaren alorrean, lanean ari dira herrian proiektuak zituzten eraikuntza enpresek hauek berriz martxan jar ditzaten, babes ofizialeko etxeak bermatuz.

MAIDER AZURMENDI

**G**obernua 100 egunak pasata, herriko alkateak datozen urteetan egin nahi duen lanaz hitz egin du.

## Zein da asmoa lau urte hauetarako?

Jakin badakigu zein den Udalaren egoera. Esan daiteke pixkana krisi ekonomikotik ateratzen ari garela. Gure lehentasunetako bat da mantenuari dagokionean herrian inbertsio handi bat egitea. Azken urteetan utzikeria izan da nagusi. Asfaltatzeak, bankuen konponketa, ia ikusten ez diren zebra bide eta seinaleak margotzea, haur jolasen berritzea, argiztapena berritu eta konpontzea. Lau urte hauetan inbertsio konstante bat egin nahi da.

Langabezia tasa jaitsi nahi dugu eta kiroldegia ere proiektu estrategiakoa da.

Aparkamenduarena arazo bat dela ere ikusten da. Okeno eta Tajamarreko plazak ateratzeaz gain, lurgaineko plaza gehiago sortu nahi dira. Zentzu horretan Iñigo de Loyolan eta Uistin kalean lanak egingo dira.

Gai asko daude irtenbide zain eta horiek halabeharrez izan behar dute egunerokoan landu beharrekoak.

## Noizko Okendoko garaiek?

Zerbitzuak sailetik pliegoak datorren hilabeteko batzordean aztertuko dira, urriaren 5ean eta espero dugu urte amaierarako lizitazioa ateratzea jendeak izena eman ahal izateko.

## Sasoetako eraberritzea zertan da?

Arazoa izan da amiantoa hormigoian inkrustatuta dagoela. Horrek beste txosten bat egitera behartu gaitu eta berriz Osalamera bidaltzea ahalik eta azkarren kentzera etortzeko. Espero dugu datozen egunetan euren aldetik erantzun bat jasotzea. Hala ere, Udalak Murias enpresarekin hitz egin du obra gunea txukuntzeko.

## Kirol esparruan zein lan egingen ari da Udala?

Bilera dugu urriaren 8an Denis Itxaso kirol diputatuarekin. Irtenbide bat emateko helburua dugu, gure lehentasunetako bat da esan bezala. Bere garaian berritze bat defendatzen

genuen baina oraintxe kiroldegi berri baten eraikuntza aurreikusten dugu kirol gunean.

## Herrian dagoen langabeziari aurre egiteko zer?

Enplegua sustatzeko ekimenak ezin izan dira aurten garatu ez zirelako aurreikusitako 2015eko aurrekontuan. 2016an sartu nahi dugu partida bat helburu horrekin. Hala ere, ez zaigu denbora jakin baterako kontratazioak irtenbide erreala direnik iruditzen.

Sprilur Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoaren ordezkariekin bildu naiz. Lur industrialia aztertzen dute eta gure udalerrian industria kokatzeko dauden aukerak aztertuko dira. Horretaz gain, Michelinekin hitz egin dugu Michelin II guneko aukerak aztertzeko. Momentuz erantzuna ona da. Gurean instalatu nahi duten marka komertzialak ere bilatzen ari gara. Bere garaian eskaintza bat egon zen baina oraingoa berria da. Helburua lanpostu egonkorak sortuko dituen industria erakartzea da. Udalaren asmoa enpresa hauekin herritarren kontratazioa baldintza bezala hitzartzea litzateke.

## Elkarteentzako lokal banaketa gauzatuko al da?

Uste dugu udalbatzarrean erabaki bezala, euskaltegi zaharrean enpresen hotela edo coworking gunea jarri behar dela. Momentu honetan beste herrietan dauden guneen arategiak aztertzen ari gara.

Bestalde, bake epaitegia zegoen lekuan, elkarten hotela jarriko genuke. Gune horretan herriko elkarteek aukera izango lukete elkartzeko.

Hala ere, inbertsioak egin beharko dira lokalak txukuntzeko. Euskaltegian esaterako, enpresa bakoitzarentzat bulego bat jarri behar da, itxita... 25.000 euro gorde ziren aurrekontuan baina aurreko gobernuak ez zuen ezer egin.

## Etxebizitza alorrean zein lan aurreikusten da?

Momentu honetan Udalarenak izan eta hutsak dauden etxeak, Alokabideren esku utziko dira kudeatu eta alokatzeko. Ez guztiak, Zelaialdeko batzuk gordeko ditugu Siriar errefuxiatuak hartzeko baita etxegabe-



tzeak jasaten dituzten bizilaguntzat ere.

Bestalde, 2017an Hipodromo etorbidean eraikiko diren eraikinetan 39 etxebizitza eskuratuko ditu udalak. Hauekin prozesua bera izango da.

Herrian proiektuak dituzten promotore guztiekin hitz egin dugu. Zehazki Kotxeraseko proiektuak aurrera egin dezan, finantzaketa arazoak ditu eraikuntza enpresak, Udalak bere aldetik erraztasunak eman nahi dizkio. Bertan 1.000 etxebizitza inguru eraikiko lirateke horietatik ia 500 babes ofizialekoak. Beti ere, eraikitzen lehengoak babes ofizialekoak izango direlarik. Berriz atera nahi dugu Zabaleta berriko lursaila lizitaziora. Hitz egin dugu ere Goiegi inguruan lurra duen enpresarekin eta bertan etxebizitza hitzartuak eraikiko lirateke. Kaxkarron babes ofizialeko etxe gehiago egitea da asmoa.

## Hipodromo etorbideko etxeak geratu dira.

Bi promotorea daude eraikuntza gauzatzen eta euren artean liskarra egon da eta epaitegira jo dute. Dagoeneko epaiketa egin da eta laster jakingo da epaia. Alde horretatik udalak argi dauka ez dela bere arazoa eta biek hitzartutakoa bete beharko dutela gurekin, hau da, lanak 2017an bukatu eta Udalar 39 etxebizitza eman. Sinatutako hitzarmena bete ezean, udalak zigorra jarriko du.

## Baketik-ekin hasitako bidearekin jarraituko al du udalak?

Baketikeko kideekin alderdi guztiak elkartu eta lanean jarraitzeko asmoa dugu. Biktimen inguruan Jaurlaritzak onartutako testuaren gainean lan egiteko konpromisoa dugu baita lanketa berezia egiteko ere, biktimen oroimenezko egunean urriaren 10ean eta giza eskubideen nazioarteko egunean abenduaren 10ean hain zuzen. Azken egun honetara begira, herriko eskolekin

egingo zaizkio Jaurlaritzari eskolatan berrikuntzak aurreikusteko. Gauza bat da udalak mantenua egin behar izatea eta beste bat 40 urtetan egin ez direnak guk ordaintzea. Zumaburuko fatxadarekin hasiko gara baina diru eskaera ere egingo diogu Jaurlaritzari. Horretaz gain, Sasotako fatxada ere egin behar da, Pablo Garaikoetxea eraikineko leihoak aldatu, Landaberriko jantokia eta Andre Joakina Eneako leihoak.

## Atsotakar egoitzarekin gauzak ez doaz ondo.

2001etik 10 milioi euroko defizita eragin du. Diputazioak ordaindu behar zuena ordaindu du Udalak. Duela bi urte adostasun batera iritsi zen Villabona, Elgoibar, Zumaia, Azpeitia eta gurea hartuko zuen Aldundiak. Zergatik? Beste 11 egoitza daude hartzeko baina aipatutako bost hauek ez dago pertsonala funtzionario gisa eta horrek errazten zuen aldaketa.

Gure harridurarako, bilera egin genuen Aldundiko ordezkariarekin eta esan zigun lau egoitza hartuko zituela baina kanpo geratzen zela herrikoa. Oinarrian arazoa ekonomikoa da. Aldundiak dio langile asko dagoela dauden egoileentzat baina oraindik gurean badira plazak eta hauek betetzekotan, ratioa orekatuko litzateke.

Berehala erabakitzea eskatu zaio edo bestela auzitegitara joko dugu zerbitzua beregain hartzeko eta baita urte hauetan udalak gastatutako 10 milioiak itzultzeko eskatuz.

## Mercero aretoan zer egingo da?

Gure intentzioa da museoarekin jarraitzea. Hala ere, garai bateko ideia aldatuta. Alde batetik museo birtual bat osatuko genuke bere lan guztiak jasoz. Baina horretaz gain, etxetik sartu ezin den jendearentzat, fisikoki espazio bat ikusten da ordenagailuekin.

Bestalde, Diputazioarekin landu nahi da egoitza bera Tabakalera proiektuaren eta Andoaingo zine eskolaren parte izateko. Sede bat gehiago ikastaroak, hitzaldiak etab. antolatuzko.

## Noizko alkatea euskaraz?

Oso perfektionista naiz. Euskaraz klaseak jasotzen ditut eta asko hobetzen ari naiz. Ez zait gustatzen hanka sartzeko eta horregatik ez naiz ausartzen pausoa ematera. Plenoa euskaraz gidatzen hasi naiz.

Horretaz gain, eskaerak